

LA IDEA DE NACION EN LOS NIÑOS VASCOS

Jokin Apalategi, Nekane Balluerka, Xabier Isasi
Donostia, Utriusque Vasconiae, 2001

I. Liburu honetan lantzen den ikerketak honako helburua du: 6-14 urte bitarteko haurren dauden nazioaren ideiak jaso eta barneratze-prozesuak aztertzea, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan. Hori guztia, kultura jasotzeak eta transmititzeak, hau da, ezagutzaren, ereduaren eta sinboloen barneratzeak sozializazio-prozesua ahalbidetzen duen neurrian. Prozesu hori jaiotzarekin hasten da, bizitza guztian zehar jarraipena izaten du eta heriotzarekin amaitzen da. Dena den, lehenengo haurtzaroak du bere baitan sozializazio-prozesu sakonena. Sozializazio-prozesuan, gizartearen edo kulturaren elementu jakin batzuk nortasun psikikoaren funtsezko osagai izatera igarotzen dira, nortasunak elementu soziokulturalak bereganatu ahala.

Agerian geratzen den arazoa honakoa da: Nola bideratzen du pertsonak bere jokabidea, kultura jakin batek proposatzen dituen motibo, aspirazio eta helburuen bitartez? Erantzunaren gakoa, noski, giza sozializazioaren mekanismo psikikoetan aurkitzen da, horien bitartez barneratzen baita ikaskuntza eta hurkoa.

Jakina da ikaskuntzaren teoriak ezin dituela baztertu herentziazko inpronta eta ingurunearen eragina, baizik eta bi elementu horiez gain, beren arteko elkarreragina ere kontuan hartu behar duela. Horrez gain, ezinezkoa izango litzateke ikaskuntzaren azalpen esanguratsu bat ematea subjektuarentzat

inguruko pertsonen duten garrantzia, subjektuak beraiekin mantentzen dituen harremanak eta beraiekiko jokabidea kontuan izan barik. Horrek bestearen edo hurkoaren barneraketa den bigarren sozializazio-mekanismora garmatza.

II. Sozializazioaren sabaian nazioak eta nazionalismoak topatzen ditugu. Nazioari buruz ari garenean, unibertsaltzat, —baina, era erlatiboan—, hartzen den kategoria sozial horietako bati buruz ari gara; hau da, finkoa ez den kategoria sozial bati buruz, zeina ez dagoen definitiboki ezarria, zibilizazioaren aldi ezberdinei dagozkien giza beharrek eraginda garatzen baita.

Giza talde batek bere ohitura eta bizimodua ideologizatzeari ekiten dionean hasten da sortzen nazio bat. Hau da, talde batek gauzak egiteko moduan zerbait berdina, berezia, bakarra eta baliotsua dagoela defendatzen duenean. Esfortzu ideologizatzaile horietan inguruan mugitzen diren pertsonen laguntzen dute. Aldi berean, berdintze- eta ezberdintze-prozesu bat jartzen da martxan; hots, pertsona batzuk barneratu eta beste batzuk kanporatzen diren prozesu bati ekiten zaio.

Testuinguru horretan; abertzaletasuna deituriko sentimendu kolektiboari erreferentzia egiten dion nazionalitario kontzeptua ere funtsezkoa da. Bere burua gobernatzeko desioa duten taldekatze homogineoekin lotzen da.

Humanitatea zabaltzen joan zen heinean milaka talde nazionalitario eratu ziren munduan zehar. Hauetariko ehundaka estatu-nazioaren agerpenarekin desagertu ziren.

Ikerketa honetan nazioa den kategoria abantzu unibertsalaren inguruan egin da lan. Horretarako, Jahoda psikologo sozialaren ildo teorikoari, Piaget-en metodo klinikoari eta Vygotski-ren metodo instrumentalari jarraiki, ikasle euskaldunen lagin bat erabili da.

III. Estatu bat talde batekiko “zorizkoa” denean, hau da, estatuak taldearen egituraketa baldintzatu gabe existi daitekeenean, bestela esanda, gizakien jatorrizko taldekatze bat dagoenean mantentzen da kategoria nazionalitarioa. Historikoki nazioaren eta estatuaren arteko kointzidentzia egon den arren, euren artean ez dago nahitaez funtsezko mendekotasunik.

Horrez gain, formakuntza nazionalitario batetik nazio-proiektu anitz, eta euren artean kontrajarriak, sor daitezkeela hartu behar da kontuan. Hori dela eta, nazionalitario kontzeptua oso erabilgarria da euskal gizartearen azterketarako, nazio ideari dagokionez dikotomizatuta baitago gure gizartea.

IV. Haurrek nazioaz duten ideia, lehenengo aldiz, “Aberriaren ideia eta atzerriarekiko harremani buruzko garapena haurretan”, lanean aztertu zuten 1951urtean Jean Piaget eta Anne Marie Weilek Suitzan. Haur-arrazomenduan norbere aberria eta atzerria kontzeptuen funtzionamendua landu zuten ikerketa horretan.

1963. urtean G. Jahodak, “Aberria eta nazionalitatearen ideien garapena haurrengan” aztertu zuen. Ikerketa horretan, hitzen osakeraren bitartez eta irudikapen espazialen bitartez Glasgow-Eskozia-Britainia Handia unitate

jarraien eraketa kontzeptuala ikertu zuen.

V. Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan, kulturalki dikotomizatuta dauden erkidegoak diren neurrian, nazioaren ideia haurrek nola jasotzen eta transmititzen duten aztertu nahi izan da ikerketa honetan. Eginkizun horretarako behaketa kliniko erabili zen, hau da, datuak ingurunearen azterketaren bitartez eskuratu ziren.

Ikerketa hau, gaur egun, Araba, Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroako eskoletan indarrean dauden ikaskuntza-eredu ezberdinetan kokatu nahi izan da.

VI. Ikerketaren objektuei, helburuei eta erabilitako metodoari dagokienez, autoreen ustez, soziokulturalak diren eredu linguistiko ezberdinetan dauden haurren azterketara mugatu dira. Eredu linguistikoen eta nazio-nazionalitate ideien jasotze-transmisioaren artean loturaren bat dagoen aztertu nahi izan dute autoreek. Horrez gain, nazioaren kontzeptua noiz egituratzen den eta beharrezko aurrepausoak zeintzuk diren definitu nahi izan dute.

VII. Datuen bilketarako erabilitako tresnak elkarrizketa erdi-estrukturatu bat eta izaera grafikoko froga bat izan ziren.

6-14 urte bitarteko neska-mutikoak hautatu ziren lagin gisa. Alde batetik, garapen psikologikoaren ikuspegitik, adin-tarte erabakigarria delako, eta, bestalde, orain gutxira arte derrigorrezko eskolaratze-adina 14 urte zelako.

Erabilitako prozesaketari dagokienez, datuen bilketa 1996-1997 urteen artean, J. Apalategik koordinatuta egin zen. Datuen eskuraketan aurrez hezitako hamar elkarrizketatzailek hartu zuten parte. Pertsona bakoitzarekin

osatutako saioak 25 minutako iraupe-
na izan zuen.

VIII.

D eredu:

6-8 urte bitarteko haur gehienek mugimendu nazionalitarioak zabaldutako tesi zehatzen eragina agertzen dute. Erabilitako hiztegian, egindako erreferentzia historikoetan eta abarretan suma daiteke eragina. Afektibitatearen arloan ere antzeko joera ikus daiteke.

9-11 adin-tarteko haurrek, salbuespenen bat izan ezik, argi eta garbi azaltzen dute euskal sistema nazionalitario baten ideia, estatu-nazio sistemaren aurrean. Hiztegian eta maila afektiboan islatzen da.

12-14 urte bitarteko haurrek aurreko adin-tartean aurkitutakoa baieztatzen dute. Baina, adinean aurrera egin ahala eredu lausotu egiten da, momentuko *statu quo*-aren onarpenerantz.

B eredu:

6-8 urteen arteko haurrei dagokienez, 36tik 27k entzun dute Espainiaz hitz egiten, 21ek Euskal Herriaz eta 6k Frantziatz. Afektibitateari dagokionez, Espainiaranzko gerturatzea nabari da.

9-11 urte bitarteko haurrei dagokienez, momentuko egoera instituzionala onartu dute, irizpide kritiko gabe. Hiztegiaren erabilerak agerian uzten du joera hori, neurri handi batean, instituzionalki ezarritako terminologia erabiltzen baita.

12-14 urte bitarteko haurrek egoera instituzionalaren logikari jarraituz erantzuten diote nazionalitatearen galderari. Haur batek berak ere ez dio bere buruari euskal nazionalitatea eslei-

tzen; eta aldi berean euskalduna eta espainiarra izan ote daitekeen galderari eredu honetako haurrek baiezkota erantzun diote.

A eredu:

6-8 urte arteko haurrek gertutasunez hitz egiten dute Espainiari buruz. 36tik 27k ezagutzen dute Espainia, eta kasuren batzuetan adjektibo baikorren bitartez definitzen dute.

9-11 urte bitarteko haurrek estatu-nazio ideia errealtate enpiriko gisa barneratu dutela azaltzen dute.

12-14 adin-tarteko haurrek erabat barneratuta dute estatu-nazioaren ideia; nahiz eta ereduak ez duen bere partaideen erabateko lotura eskuratzen.

IX. Liburu honetan azaltzen den ikerketari dagokionez, komenigarria da oroitaraztea beraz, ezin dela hartu aurkitu dituzten ondorioak erlatiboak direla, eta beren baliagarritasuna erabilitako laginera mugatzen dela, printzipio edo lege orokor gisa. Hala ere, landutako arazoen joera eta parte hartzen duten aldagaien bilakaera azaltzen dutela ondoriozta daiteke.

Nazio-nazionalitatearen eta aberriaren ideari dagokionez, bilakaera baten existentzia baieztatzen da. Baina bilakaera hori ez da jarrai gisa ulertu behar, ezta norabide bakarrean ari dena balitz bezala ere.

Euskal Herriko kasuari dagokionez, ikus daiteke joera sentimental eta intuitiboa oso adin goiztiarretik bereizten dela bi proiektutan, biak arrazionalak baina elkarren aurkakoak, eta, ondorioz, gatazka nazionalaren eragile. Haur euskaldunek oso goiz dute aurrean, orientazio binazional gatazkatsu bat.

Talde euskaldunak, estatu espainiarrean gutxiengoa izan arren, taldeak emandako handitasun desafiatzailearekin bizi du berezi izatea.

Irakaskuntza-eredu ezberdinetako haurren ulermen geografiko eta espazialaren inguruan eginiko azterketak, eztabaidarik gabe, frogatzen du D ereduko hurrek duten ulertzeko gaitasun handiagoa; eredu hori mugimendu nazionalitarioaren eskakizun eta errebindikazioekin zuzenki erlazionatuta dago. Beraz, mugimendu nazionalitarioen eraginez, hurrek hurbil dutenarekiko eta zehatza denarekiko sentibilitatea garatu izanak, giza adimenaren garapenean ere, hurbileko edo urruneko errealitate enpirikoen existentzia ulertzen lagun dezake. Garapenaren alor hurbila testuingu zehatzeko historia eta kontakizunez betea egongo litzateke, garapenaren alor urruna aldiz historia eta kontakizun unibertsalek osatuko luketelarik.

Aberria eta nazio-nazionalitate gisa definitutako kontzeptuen ulermenari dagokionez, aldiz, elkarrizketetan lortutako datuek ez dute ulermen azkarra edo hobea azaltzen, ez mugimendu nazionalitarioarekin erlazionatutako haurretan, ezta estatu-nazio espainiarraren proiektuari lotutako haurretan ere. Bi taldeetako hurrek adinari dagokion bilakaera oso antzekoari darraio. Hori bai, argi geratzen da arrazionaltasun ezberdina duten oinarrietan egituratzen direla kontzep-

tu horiek. Ondorioz, aberri eta nazio-nazionalitate kontzeptuetan arrazionaltasun-gatazka bat dagoela esan daiteke.

Horrez gain, lortutako datuen arabera, garbi dago irakaskuntza-eredua zenbat eta gehiago hurbildu Espainiako eredura, eta zenbat eta gehiago alden du erkidegoetako eredu elebidunetik, orduan eta leialtasun handiagoz zabaltzen dela espainiar estatu-nazioaren proiektuari dagokion aberri eta nazio-nazionalitatearen kontzeptua.

Hortaz, A ereduko hurrek, orokorrean, inhibizio baxuagoa azaltzen dute eta garbiago azaltzen dira espainiar estatu-nazio proiektuaren alde. B ereduko hurrek, aldiz, irudi zalantzakorragoa azaltzen dute.

Bestalde, adinaren arabera, elkarrizketako galderen aurrean kontuan hartu beharreko inhibizio-maila azaltzen dute.

Emaitzen arabera, inhibizioa agerriagoa izatea zaharragoetan, hurrek euskal gizarteak bizi duen gatazka-egoeraren kontzientzia handiagoa izatearekin erlazionatuta egon daitekeela ondoriozta liteke. Eta inhibizio-zentzua ez da hainbeste ezagutza ezak eragindakoa, hautatutako arrazionaltasunaren ezkutaketaren ondorioa baizik.

Maite Altuna